



INIMIGRAZIOARI ETA ATZERRITARREI BURUZKO JARDUERA, 2012ko 1. SEIHILEKOA

Gai nagusiak seihilekoan

1. Estatuko hauteskunde orokorren ondorioak. Immigrazio eta emigrazio gaietan aldaketak ministerioetan. Idazkaritzaren jardueraren lehen azterketa.
2. Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio politika. Euskadin Immigrazioaren aldeko Itun Soziala eta Hirugarren Immigrazio Plana, 2012-2013.
3. Etxe-zerbitzariei buruzko arautegian aldaketak eta horren ondorioak immigrazioan.
4. Zentro itxiak.
5. Krisi ekonomikoa eta honen ondorioak: langabeziaren bilakaera.
6. Migrazio fluxuak eta balantzak.
7. Immigrante kopuruen bilakaera, egoitza baimenen eta erregistroko ziurtagirien arabera.
8. Murrizketak osasun zerbitzuetan: arauz kanpoko egoera administratiboak eta osasun txartela; ondorioak Batasuneko pertsonengan eta haien familiartekoengan.
9. Eskuin muturra European, Frantzia, Grezia eta Serbiako hauteskunderen ondoren.
10. Eskuin muturreko neopopulismoa Estatu espainolean.
11. Aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumuruak.
12. Etorkin metatzea eskoletan eta horren ondorioak.
13. Facies delitua. Poliziaren 2/2012 zirkularra.
14. Goraka ala beheraka doa delitu kopurua? Zifrekin eduki beharreko arretak.
15. Erljio aniztasun eta tolerantziari buruzko azterketa soziologikoa Euskadin, eta kultu zentroei buruz Eusko Jaurlaritzaren legegaia.
16. 2003/109/CE Zuzentarauaren ezartzea, egoiliar iraunkorrak kanporatzeaz.
17. Lagundu Gabeko Adingabe Atzerritarrak. Estatuko Fiskal Nagusiaren jarraibideak.
18. Atzerritartasun prozedurak: udalen eta autonomia erkidegoen txostenak.
19. Sorterrian eginiko kontratazioen kudeaketa kolektiboa, ESS/1/2012 Agindua.
20. Atzerritartasun Iragarki Taula.
21. Gonbite Gutunak tramitatu eta jaulkitzeko jarraibideak, 4/2012 jarraibidea.



22. Adingabe sahararrei bisak emateko jarraibideak, 2012ko uda.

23. Ihesa eta Babesa.

24. Barajaseko aireportuko sarrera kontrolak, Brasil eta Mexikorekiko gatazka eta hitzarmena.



1. Estatuko hauteskunde orokorren ondorioak. Immigrazio eta emigrazio gaietan aldaketak ministerioetan. Idazkaritzaren jardueraren lehen azterketa.

Immigrazioari dagokionean, Alderdi Popularraren egitasmoa zehaztasun gabea zen oso. Lau puntu azpimarra zitezkeen: naziotasuna, sorterrian eginiko kontratuen kudeaketa kolektiboa, erregimen orokorreko lan baimenean mugapen geografiko eta profesionalak kentzea eta adingabeei buruzko legeria berezia garatzea.

Guzti horretatik zer egin da 2012ko lehen seihileko honetan? Oraingoan, ezer ez. Hasteko, ministerioen birmoldatzeak "jaitsi" egin du migrazioez arduratzen den erakundearen maila: Estatu Idazkaritza izatetik Idazkaritza Orokorra izatera pasa da. Lan edo Enplegu Ministerioaren barnean jarraitzen du. Lehen seihileko honetan, ezer gutxi egin du Idazkaritza horrek. Jarduerari dagokionean, atzerapen handiak nabaritu dira estatistika buletinetan. 2012rako, Immigrazio eta Emigrazioarako aurrekontua 158,8 milioikoa da: Immigrazioari dagokiona 66,8 milioi, eta Emigrazioari dagokiona 89,7 milioi.

2. Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio politika. Euskadin Immigrazioaren aldeko Itun Soziala eta Hirugarren Immigrazio Plana, 2012-2013.

Euskadin Immigrazioaren aldeko Itun Sozialaren inguruan bilerak egin dira hiru lurraldeetan, eta haietan eginiko ekarpenekin osatuko da behin betiko testua.

Hirugarren Immigrazio Planak bost ildo estrategiko ezartzen ditu:

- Euskadin immigrazioa kudeatzeko Euskal Immigrazio Politika egituratu eta artikulatu.
- Politika hori garatu ahal izateko tresnak eta bitartekoak ipini Eusko Jaurlaritzaren esku.
- Erakundeen arteko elkarlana bilbatu.
- Hiritartasun eta integrazioarako euskal tresna politikoak berregin.
- Enplegua, formakuntza eta eskola-arrakasta, integrazioa, hiritartasun osoa eta giza baliabide ekonomikoen garapena indartzeko.

Arazoa da legealdiaren amaieran gaudela ematen duela eta, hala bada, etorkizun eskasa du honek guztiak.

3. Etxe-zerbitzarietarako buruzko arautegi aldaketak eta horren ondorioak immigrazioan.

Urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen araubidearekin, desagertu egiten da etxe-zerbitzari etenak (etxe bat baino gehiagotan lan egiten dutenak eta, lehengo araubideaz, gizarte segurantzaren nork bere burua kide izaten zutenak); orain, lan egiten duen etxeetako bakoitzean egin behar diote zati denborazko kontratua, nagusiari eta langileari dagozkien kotizazio berezituarekin. Eta, igartzen zenez, enplegatzaile askok uko egiten diote horri. Langile multzo hau da bere enplegatzaileekin arazorik larrienak dituen eta lanerako eta egoitza baimena berritzeko eragozpen bizienak dituen.

4. Zentro itxiak.

Atzerritarrentzako Zentro Itxiak arazo iturri izaten jarraitzen dute. 2011ko abenduan hil zen Madrilgo AZIan Samba Martine, mediku arretoa eskasagatik. 2012ko urtarrilaren 6an



hil zen Idrissa Diallo Bartzelonakoan. Ekainaren 1ean Austin Jhonson Nigeriara deportatu zuten eta, bidaian jasandako tratu txarrengatik, hiru egun egon behar izan zuen erietxean.

Ekainaren 11n, Zentro Itxien Arautegiaren lehen idatzaldia aurkeztu zuen Barne Ministroak; “Zuzenbidea ez dadila AZIen atarian gera” plataformak arbuiatu egin zuen, haietan dauden pertsonen eskubideak bermatzen ez dituen polizia izkribu bat delako.

5. Krisi ekonomikoa eta honen ondorioak: langabeziaren bilakaera.

Langabeziaren izurritea ez samurtu eta horrek erakusten 2010z geroztik pairatzen ditugun murrizketek ez dutela funtzionatzen, ez dutela egoera onbideratzen.

Atzerritarren langabezia tasa nabarmen handiagoa da espainiar naziotasuna dutenena baino: %36,95 eta %22,21, hurrenez hurren. Aktibitate tasa ere aski handiagoa dute atzerritarrek (%75,84, eta %57,77 espainiarrek), beren adin piramideagatik. Autonomia Erkidegoka, okerrera egin duen arren, EAE da oraindik langabezia tasa txikiena duena (%13,55); eta lurraldeka, Gipuzkoa, %10,93rekin.

6. Migrazio fluxuak eta balantzak.

2011ko migrazioen balantza ezkorrak asaldura eragin zuen, aspaldian ez bezala zetozenak baino gehiago zirelako joaten zirenak. 2012ko lehen seihilekoan, joera bertsua da: 195.530 pertsona etorri dira Estatura, eta 269.515 joan dira, horietatik 40.625 espainiarrak; hots, joan direnen %15 espainiarrak dira. Gipuzkoan, are nabariagoa da joera: 2.619 etorri dira eta 5.616 joan. Joera hauek, hala, epe luzeagoetan hausnartu behar direla diogu, berriro ere. Itzultzeko sistema instituzionalizatuen bitartez sorterrira itzultzen ari diren atzerritarrek gutxi direnez, ondorioztatu behar da nor bere kabuz joaten ari direla gehienak.

Gaur egun hiru sistema daude instituzionalizatuta: gizarte arretazko borondatezko itzultze sistema (2011an Estatuan 2.119 pertsonak erabili zutena; EAEn 168 izan dira azken hiru urteetan); borondatezko itzultze produktiboa (EAEn inork erabili ez duena); eta langabezia saria kapitalizatuta itzultzeko laguntzak (azken hiru urteetan EAEn 92 pertsonak jaso dituztenak).

Atzerrira doazen espainiarrei dagokienez esan behar da kasu batzuetan eman den gorakada Memoria Historikoaren Legeari zor bazaio ere, herrialde hartzaile nagusi guztietan (Europar Batasuna, Suitza, AEB, Kanada eta Australian) hazi dela bertan bizi diren espainiarren kopurua.

7. Immigrante kopuruen bilakaera, egoitza baimenen eta erregistroko ziurtagirien arabera.

2012a hastean, 5.711.040 atzerritar zeuden erroldatuta Estatu espainolean, urtebete lehenago baino 40.447 gutxiago; populazio osoaren %12,1 ziren. EAEn, 151.162 zeuden erroldatuta, populazio osoaren %6,9. Egoitza baimena eta erregistroko ziurtagiria dutenak, 2012ko martxoan, 130.065 ziren EAEn; horietatik 51.642 Europar Erkidegokoen Erregimena dutenak, eta 78.423 Erregimen Orokorrekoak. Azken hauen artean, iraupen luzeko baimenak edota iraunkorrak dituzten pertsonak gero eta gehiago dira eta, horrela, E. Erkidegokoekin batuta, esan daiteke gehiengo oso zabal batek bost urteko baimena duela gurean: %71,7k EAEn eta %72,7k Gipuzkoan. Egonkortasun handiko egoera da, beraz, ikuspegi administratibotik.



8. Murrizketak osasun zerbitzuetan: arauz kanpoko egoera administratiboak eta osasun txartela; ondorioak Batasuneko pertsonengan eta haien familiartekoengan.

Apirilaren amaieran iragarri zituen Madrilgo gobernuak Osasungintza zerbitzuetako murrizketak. Horien artean zegoen Espainian erroldatuta baina arauz kanpoko egoera administratiboan dauden atzerritarrek osasun laguntza publikoa, espainiarrek bezainbestean, jasotzeko eskubidea kentzea. Bidenabar adierazten zen Europar Erkidegoko pertsonak aseguruia eduki behar dutela, baina gehiagoko zehaztasunik gabe, Atzerritartasunari buruzko legeriak lau egoera nagusi bereizten ditu:

- Europar Erkidegoko edo Esparru Ekonomikoko atzerritar egoiliarak eta haien familiartekoak. Bost urtean behin berri beharreko Erregistro Ziurtagiria daukate.
- Egoitza baimena duten atzerritar egoiliarak. Lehen baimena urtebetekoa dute, lehen eta bigarren berritzeak bina urtekoak, eta handik aurrera iraunkorra da baimena, bost urtean behin berri beharrekoa.
- Egoitza baimenik ez duten baina bizi diren herrian erroldatuta dauden atzerritarrak. Administratiboki, arauz kanpoko egoeran daude, baina irregulartasun hori ez da delitua, hutsegite administratiboa bizik.
- Egoitza baimenik ez duten eta, zergati ezberdinak medio, erroldatuta ere ez dauden atzerritarrak. Erabat arauz kanpo daude.

Lau multzo handi hauetan hirugarrena da murrizketek zuzenkien kaltetu dutena, hauen ondoren laugarren multzokoen paretsuan aurkituko direlako.

Atzerritartasunaren Legeak dio, bere 12.1 artikuluan: “Espainian, ohiko bizilekua duten udalerriko erroldan izanea emanda, aurkitzen diren atzerritarrek osasungintza laguntza jasotzeko eskubidea dute espainiarren baldintza berberetan”. Gobernuak iragarri duen aldaketarekin, puntu hau ezerezean geratuko litzateke. Aurrerantzean, artikuluko horren 2. puntuak dioena aintzat hartu beharko litzateke: “Espainian aurkitzen diren atzerritarrek gaixotasun larri edo nolana hiko istripuengatik larrialdiko osasungintza laguntza publikoa jasotzeko eta arreta horrek mediku senda-agiria jaso arte iraun dezanezko eskubidea dute”.

Bata eta bestearen arteko aldea nabarmena da. Eskubide galera bat eta atzerapauso ikusgarria suposatzen du, 7/85 legeak ezartzen zuen egoerara itzultzea den heinean. Zenbat pertsona kaltetuko dituen kalkulatzeko ez da erraza, baina lehen hurbilketa batean esan liteke 157.000 bat izan daitezkeela Estatu osoan. EAEn, 22.886 dira erroldatuta dauden pertsonen eta egoitza baimena dutenen arteko aldea.

Hainbat Autonomia Erkidegok, eta horien artean EAEk, jakinarazi dute murrizketa hauek ez dituztela gauzatuko eta Konstituzio Auzitegira eramango dutela. Baina errefusamendu hori zertzeko Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen dekretuak ere, murrizketa bat barneratzen duen baldintza berria ezarri du osasun arreta hori jaso ahal izateko: hura eskatu aurretik urtebete erroldatuta egon beharra.

9. Frantzia, Grezia eta Serbiako hauteskunde ondoen, eskuin muturra European.

Frantzian (lehendakaritzarako eta Asanbladarako), Grezian (parlamenturako), Serbian eta Hungarian egin berri diren hauteskundeetan talde politiko nazional-populistik lortu dituzten emaitza onen aurrean ezinbestekoa da gogoeta sakona egiten hastea.

European eskuin muturra deitzen duguna oso mundu politiko anitz eta konplexua da, eta



taldeetako batzuek kultura arloan gehiago dihardute politikan baino. Alderdi politikoen artean, hiru multzo nagusi bereiz genitzake:

- Ultraeskuin klasikoa, nazismoari eta faxismoari atxikia, Greziako Urre-koloreko Egunsentia, adibidez.

- Eskuin berria, 1970reko hamarkadan Eskandinabian sortua, faxismotik ez datorrena eta gobernua iristeko asmoa argia duena. Iparraldeko herrialdeetako alderdi populisten edota Italiako Lega Nord-aren kasua litzateke. Alderdi islamofoboak dira.

- Alderdi hibridoak dei genitzakeenak, Frantziako FN, Austriako FPÖ edota Belgikako VB kasu. II. Mundu Gerraz geroztik desagertuak ziruditenen berpizkundera dira eta beste batzuentzat eredu bihurtzen ari dira.

- Europa Ekialdeko eskuin muturra aski berezia da, eta eduki nazionalista handikoa.

Ez gaude iragan mendeko 30.eko hamarkadan. Talde hauek iragan ilun harekin eduki ditzaketen loturez haratago, egungo eskuin muturrak, gure ustez, egungo arazo sozial eta politikoei erantzuten die, egungo jendearen beldur eta nahikundeei. Egitate iraunkorra da aurrean duguna, eta epe luzera egin beharko haren aurkako borroka.

Iraganean baino argiago agertzen ari den beste arazoa da “esparru grisa”, hau da, eskuin demokratikoak eta eskuin muturrak bat egin dezaketeneko eremua handitzen ari dela, Frantziako Sarkozyren kanpainan nabaritu ahal izan den bezala.

Eskuin muturreko partidu hauek gobernu alternatiba izan ote daitezke laster? Ez dago adostasunik honetan; batzuen ustez, presio talde eta haserre adierazpen izaten jarraituko dute; beste hainbatek, ordea, gobernu kontserbadoreen politikak alor batzuetan nabarmen baldintzatzeko ahalmena iragartzen diete.

10. Eskuin muturreko neopopulismoa Estatu espainolean.

Europar Batasunean, Portugal, Irlanda eta Espainia (Kataluniako salbuespenarekin) dira herrialde bakarrak hautesle kopuru aipagarria lortzen duen ultraeskuineko partidurik ez dutenak. Espainiako kasuan, eskuin muturreko gune hori Alderdi Popularrak betetzen du. Alderdi Popularra, bere osotasunean, ez da eskuin muturreko alderdia, ezta gutxiagorik ere, baina noizean behin kinadak egiten ditu alde horretara. Katalunian aspalditik, eta EAEn oraintsu, Basagoiti eta Marotoren bitartez: bertakoen lehentasuna eta zibilizazio eta kulturen erretolika haizatzuz, Europako eskuin muturreko taldeen ildoan. Datozen hauteskundeetan botoak irabaz ditzaketela pentsa dezakete, baina eskuina ultraeskuinaren soroan sartzen denean, eskuin muturrak irabazten du eta demokrazia izaten da galtzaile.

11. Aurreiritziak, estereotipoak eta zurrumuruak.

Ikuspegi estereotipatuak, gehiegizkoak, gizatalde baten ezaugarrietako batzuen orokortze taxugabeak dira aurreiritziak. Nork bere taldea, endogrupoa, hobetsi eta besterena, exogrupoa, gaitzesten ditu aurreiritziak. Errealitatetik urrun eta asmakizunez beteak egoten dira. Batzuetan, aurreiritziak zurrumuru bihurtzen dira, lagunartean behin eta berriz kontatuz, gizartera eta politikara hedatzen den giro moral ezkor bihurtzeraino. Bestalde, politikak bultzatu eta erabili egiten ditu aurreiritziak eta zurrumuruak, jendearen beldurraz baliatzeko eta botoak irabazteko.

Hau guztia arazo bat da gaur hemen, Estatu beste leku batzuetan eta Europar Batasun osoan. Horri aurre egiteko ahaleginak ere leku ezberdinetan ari dira egiten. Katalunian, esaterako, lan interesgarria burutu dute. Hemen, Gipuzkoan, Martxoaren 21eko



manifestazioa aurten gai horren inguruan egin da, eta Eusko Jaurlaritzak ere material aproposa landu du.

12. Etorkin pilaketak eskoletan: txarrak al dira ondorioak beti?

Jendearen artean sakonkien erroituriko aurreiritzietako bat da eskola batean ikasle etorkinak metatzeak jaitsarazi egiten duela hango ikas maila. Matrikutzaren inguruko mugimenduak erakarri ohi ditu horrek, bertako haurren gurasoek beste eskoletara joaten baitira, edota haur atzeritarren kopurua mugatzeko neurriak exijitzen baitituzte. Julio Carabaña katedradunak PISA 2009 txostenaren harira eginiko ikerketak, ordea, frogatu du guraso, irakasle eta aginte publikoen kezka hori ez dela egiaztatzen, eta ez dagoela ikaskide etorkinen eraginik, ez onik ez txarririk, bertako gurasoak dituztenen ikas mailan.

13. Facies delitua. Poliziaren 2/2012 zirkularra.

Aurrekoetan salatu ditugu poliziaren jarduera ilegalak zenbait pertsona fenotipoagatik, hau da, itxura fisikoagatik galdekatu edota atxilotu ohi dutelako. Salakuntza hauen ondoren eta Herriaren Defendatzaileak ere esku hartu ondoren, Polizia Zuzendaritza Nagusiak 2/2012 zirkularra argitaratu du, jokabide horiek itxuraz bederen zuzenduz. Bidean, badirudi legez kontrako zerbaitek egitekotan ez balego ez dagoela inori dokumentazioa zertan eskaturik, eta dokumentazioa edukiz helbide bat emateko gai direnak ez dagoela komisariara identifikatzera zertan eramanik.

14. Goraka ala beheraka doa delitu kopurua? Zifrekin eduki beharreko arretak.

Otsailaren 21ean agertu zen Barne Sailburua Legebiltzarreko Batzordearen aurrean Ertzaintzak 2011n erregistraturiko delituen kontu emateko. Ertzaintzak argi esan bazuen zertaz ari zen, ez zen beste horrenbeste gertatu hedabideetan ondorengo ordu/egunetan, denek hitz egin baitzuten delituez, oro, Ertzaintzak jasotakoak zirela soilik argitu gabe, eta argibide mugatua zena ikuspegi orokor bilakatu zuten. Behin eta berriz errepikatu dugu delinkuentzia, eta hark immigrazioarekin izan dezakeen harremana, oso arinki hizpideratzen dela, eta oso zuhurra izan behar dela zifrak eta konparaketak egiterakoan. Ertzaintzak hala egin zuen, hedabideek ez.

15. Erlijio aniztasuna eta tolerantziari buruzko azterketa soziologikoa Euskadin, eta kultu zentroi buruzko Eusko Jaurlaritzaren legea.

Erlijio aniztasuna gero eta nabariagoa da euskal gizartean. Maiatzaren 4an aurkeztu zen Eusko Jaurlaritzak otsailean inkesta baten emaitza. Oro har, erlijio aniztasuna tolerantziaz eta abegi onez hartzen duen gizartea aurkitzen dugu bertan, baina argigarriak dira baita ere nabaritzen diren hainbat jarrera ezkor eta intolerante, batez ere erlijio musulmanari eta haren kultu zentroi dagokienean, Bilbo eta Gasteizko kasuetan egintzetan frogatu dena, bestalde.

Eusko Jaurlaritzak EAEko Kultu Zentroen Legea aurkeztu du. Eztabaidagai dago baina Kataluniako legearen antzekoa da kultu zentroak zer diren zehazterakoan eta haietzako erreserbatu beharreko lurzorua arautzerakoan. Hango esperientzia aintzat hartuta, komeni litzateke hemengoan zehatzago ipintzea erlijio erabilpenetarako lurzorua erreserbatzeko betebeharra. Hirigintzak ez luke aitzakia izan behar inguruko



auzotarren esanera erlijio Zentroen agerpena eragozteko.

16. 2003/109/CE Zuzentarauaren ezartzea, egoiliar iraunkorrak erbesteratzeaz.

Baimen iraunkor edo iraupen luzekoak dituzten pertsonak erbesteratuak izan daitezke, baina mugapen zehatzekin. Hainbat epaitan ebatzi da Europar Batasuneko hiritarrak edo iraupen luzeko egoitza baimena duen edonor erbesteratu ahal izateko beharrezkoa dela haren jokabide pertsonala ordena publikorako arriskugarria izatea egiazki, orainaldian eta larritasun nahikoz.

17. Lagundu Gabeko Adingabe Atzerritarrak. Estatuko Fiskal Nagusiaren jarraibideak.

Martxoaren 29an argitaratu zen 1/2012 jarraibidea Lagundu Gabeko Adingabe Atzerritarren Erregistroaz. Estatuko Fiskal Nagusiari dagokio koordinazioa, eta Atzerritarren Fiskal Ordezkariei probintzia mailan.

18. Atzerritartasun prozedurak: udalen eta autonomia erkidegoen txostenak.

Atzerritartasun Araudia onartu zenetik hizpide izan da zein administraziori zegokion bertan aurreikusten diren argibide-txosten ezberdinak egitea.

Familia berrelkartzeko **bizileku egokiaren txostena** EAEn Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzari dagokio; Nafarroan eta beste hainbat erkidegotan, udalei. Orobat, **gizarte-sustraitze txostenen** kasuan ere. **Adingabekoen eskolaratze txostenen** kasuan ere, Erkidegoko erakundeak dira arduradunak. **Integratze ahaleginaren txostena** ez da derrigorrezkoa eta Erkidego Autonomoek bete behar dute, gutxieneko eduki batzuekin.

19. Sorterrian eginiko kontratazioen kudeaketa kolektiboa, ESS/1/2012 Agindua.

Hizkera arruntean *kupoak* deitzen ditugunak lirateke. Aurtengo urterako:

- Ez da onartzen lanpostu finkoetarako kontratatzerik.
- Jatorrizko espainiarren seme edota bilobentzat lanpostu bilaketarako bisarik ere ez da izan.

Beraz, sorterrian eginiko kontratazioak aldi baterakoak (bederatzi hilabetez azpikoak) edota obra edo zerbitzukoak (urtebetez azpikoak) beharko dute izan.

20. Atzerritartasuneko Iragarkien Taula.

Urte hasieran ipini da martxan Atzerritartasun Araudiak aurreikusten duen Iragarkien Taula. Jakinarazpenak egin ezin direneko kasuetan erabiliko da eta 20 egunez egongo dira iragarkiak Taulan, egun osoz eta urte osoan. Ondoren, jakinarazpena egintzat emango da.

21. Gonbite Gutunak tramitatu eta jaulkitzeko jarraibideak, 4/2012 jarraibidea.

Atzerritarren eta Mugetako Komisaria Nagusiak argitaratu zuen maiatzaren 17an. Gonbidatzaileak non eta nola emango dion ostatu gonbidatuari, eta ez du argibiderik



eman beharko haren nortasunaz edota harekiko harremanaz.

22. Adingabe sahararrei bisak emateko jarraibideak, 2012ko uda.

Aurten 5.467 adingabe eta 239 begirale etorriko direla aurreikusten da Ministro Kontseiluak onartutako jarraibideetan. Urtetik urtera txikiagoa da oporretara datozen adingabe sahararren kopurua.

23. Asiloa eta Babesa.

Espainiako agintariei egin zaizkien asilo eskakizunen balantzak argi eta garbi erakusten du gauzak ez doazela bide onetik: CEAREN datuen arabera, 2011n 3.414 eskakizun aurkeztu zitzairen; horietatik, %9,5i soilik onartu zitzaion eskaria eta %73,5i ukatu egin zitzaion. EAEn, 112 eskaritak, hiruk lortu zuten asiloa.

24. Barajaseko aireportuko sarrera kontrolak, Brasil eta Mexikorekiko gatazka eta hitzarmena.

Aurtengo udaberrian berpiztu da duela lau urte, Barajaseko aireportuan brasildar emakumeei ematen zitzairen tratu laidogarriagatik, Espainia eta Brasilgo gobernuek eduki zuten ika-mika; orduan, Brasilek, tenore berdineko ordaina eman zien espainiarrei. Eta orduan bezala orain, Espainiako gobernuak atzera egin behar zuen. Aurten, gainera, Mexikorekin ere izan da liskarrik, eta ekainean 10 puntuko hitzarmena onartu zen konponbiderako.